

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1306

AGINDUA, 2014ko otsailaren 25ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kideak kargutik kendu eta, ondorioz, beste batzuk izendatzen dituena.

Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 10. eta 12. artikuluetan, Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duen martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuaren 4., 5. eta 8. artikuluetan –dekretu horrek aipatu legea garatzen baitu–, eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren funtzionamendu-araudia onartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1990eko apirilaren 4ko Aginduaren 5. eta 15. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Andoni Busquet Elorrieta jauna, Tokiko Administrazioaren ordezkarien taldeen ordezkari dena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kide kargutik kentzea.

Bigarrena.– Andoni Agirrebeitia Abendibar jauna Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea, Tokiko Administrazioaren ordezkarien taldeen ordezkari gisa, Andoni Busquet Elorrieta jaunari agintaldia amaitzeko geratzen zaion denboraldirako.

Hirugarrena.– Mikel Pagola Tolosa jauna, Tokiko Administrazioaren ordezkarien taldeen ordezkari dena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kide kargutik kentzea.

Laugarrena.– Boris Nogales Benito jauna Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea, Tokiko Administrazioaren ordezkarien taldeen ordezkari gisa, Mikel Pagola Tolosa jaunari agintaldia amaitzeko geratzen zaion denboraldirako.

Bosgarrena.– Ikasle Abertzaleak proposatuta, Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikasleen ordezkari den Ikoitz Arrese Otegi jauna, Euskadiko Eskola Kontseiluko kide kargutik kentzea.

Seigarrena.– Ikasle Abertzaleak taldeak proposatuta, Gaizka Azketa Etxeberria jauna Euskadiko Eskola Kontseiluko kide izendatzea Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikasleen ordezkari gisa, Ikoitz Arrese Otegi jaunari bere agintaldia amaitzeko falta zaion aldirako.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 25a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.